



BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA
HAUR ETA NERABEEN SEXU-ABUSUEN AURREAN JARDUTEKO
PROTOKOLOA



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

AURKIBIDEA

1. JUSTIFIKAZIOA	2
2. ERREFERENTZIAKO ARAUDIA	2
3. JARDUTEKO PRINTZPIO OROKORRAK.....	3
4. SEXU-ABUSUA.....	4
4.1. Sexu-abusuaren kontzeptua.....	4
4.2. Sexu-abusu motak.....	4
5. ESKOLAN JARDUTEKO PROZEDURA.....	5
5.1. Prebentzio-jarduerak	5
5.2. Ustezko sexu-abusu kasuetan esku hartzea.....	5



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

1. JUSTIFIKAZIOA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eta zerbitzu espezializatu eta profesionalekin lankidetzan, komenigarritzat jo du oinarritzko protokolo bat lantzea, hezkuntzarloko prebentzio eta jarduerarako eta adingabe horiekin babesgabetasun, tratu txar, jazarpen edo sexu-abusu fisiko zein psikologikoetan esku hartzen duten eragileen arteko lankidetzarako.

Sexu-abusua haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-modu larrienetako bat da, eta historikoki gure gizartean eta kultura guztietan agertzen da. Protokoloaren helburua da jarraibide batzuk ematea adingabeekin profesionalki esku hartzen duten agenteei, horrelako egoerak detekta ditzaten eta adingabeen osotasun eta duintasun osoa babesteko eta defendatzeko lan azkarra eta eraginkorra egin dezaten. Halaber, adingabeen eta haien eskubideak babesten esku hartzen duten erakunde guztien giza baliabideen eta baliabide materialen arteko koordinazioa erraztuko da.

Adingabeen eskubideak babesteko, alde batetik, erasoaren ondoren gazteari eragindako kaltea arintzeko jarduerak koordinatu behar dira, eta, bestetik, arriskuak behar besteko aurrerapenarekin prebenitu eta detektatu behar dira, eta, ondoren, haurren eta nerabeen jarraipen egokia egin behar da.

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolaren hezkuntza-testuinguruak astean ordu gutxi batzuk hartzen ditu ikasle bakoitzeko, baina, nolana ere, egoera horrek ez du esan nahi sexu-abusuen balizko kasu bat detektatzeko aukerarik ematen ez duenik. Hori dela eta, bertan lan egiten duten irakasleek legezko betebeharrak hori errazago bete dezaten, jarduteko protokolo bat prestatu du. Protokolo hori tresna erraza eta erabilerraza da, eta bakoitzak bere esparruan egin ditzakeen jarduerak ezagutzeko aukera ematen du.

2. ERREFERENTZIAKO ARAUDIA

Protokolo honen xede den gaiari buruzko legeria oso zabala da, bai Europan, bai estatuan, bai Erkidegoan. Hori dela eta, jarraian, gure protokoloa egiteko oinarritzat hartu ditugun euskal lege autonomikoak aipatuko ditugu:

- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko (HNL; 2005-03-30eko EHAA) Aldaketa: 3/2009 Legea, abenduaren 23koa, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Legea aldatzeko (2009-12-31ko EHAA).
- 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrak buruzkoa (2008-12-16ko EHAA).



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

- 230/2011 Dekretua, azaroaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna (BALORA) onesten duena (2011-12-12ko EHAA).
- 2016ko Hezkuntza-arloko prebentzio- eta jardun-protokoloa, gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratu txar, sexu-jazarpen eta sexu- abusu egoeretarako, Hezkuntza-arloaren eta adingabeak babesteko esku hartzen duten agenteen arteko lankidetzeta eta koordinaziorako.
- 2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeena.

3. JARDUTEKO PRINTZIBIO OROKORRAK

Jarduketa guztiak printzipio hauen arabera egin beharko dira: konfidentzialtasuna, azkartasuna, zuhurtasuna eta ahalik eta sentsibilitate eta begirune handiena inplikaturako pertsonekin. Adingabeak tartean dauden kasu guztietan, haien babesari emango zaio lehentasuna eta prozedura osoan adingabeen interes gorena bermatuko da:

- a) **Haurren edo nerabearen interes gorena:** zalantza edo interes-gatazka dagoenean, haien eskubideak beste edozein pertsonaren eskubideen gainetik daude.
- b) **Koordinazioa:** parte hartzen duten erakundeen lan koordinatua, eta lankidetzeta eta elkarlana egon dadila zaintzea, babesgabetasuna, tratu txarrak eta/edo sexu-abusuak eta sexu-jazarpena antzemateko eta egoera horiei aurre egiteko.
- c) **Bizkortasuna:** abusu-egoera antzeman bezain laster esku hartzea eta prozedurak luzatzen ez dituzten jarduketak.
- d) **Ahalik eta gutxien esku hartzea:** adingabea behin eta berriz errepikatzen diren jarduketan pean ez jartzea, prozedura judizialaren nagusitasuna errespetatzea, eta frogen kontraesan- eta gertutasun-printzipioak bermatzea.
- e) **Konfidentzialtasuna:** erakundeek eta langileek jaso duten informazioa (familia-inguruabarrak eta pertsonalak, eta ustez gertatu nahiz egiaztatu diren sexu-abusuen edo tratu txarren ondorioz eskuratutako informazioa) ezkutatzeko duten betebeharra.
- f) **Hezkuntza-tratamendua eta eragindako kaltea konpontzeko neurriak:** hezkuntza-arloan neurriak eta bitartekoak jarri behar dira indarkeria-ekintzak ekiditeko eta prebentzio-faktoreak eta positiboak sustatzeko; halaber, hezkuntza-neurriak proposatu eta landu behar dira hondatutako harremanak birsortzeko eta biktimei laguntza osoa eman eta haiei eragindako kalteak konpontzeko.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

g) **Babesa eta prozesu-bermeak:** adingabearekin egiten diren jarduketan prozesu-bermeak ziurtatzea, hura babesteko eta haren eskubideak zaintzeko.

h) **Prebentzioa**

4. SEXU-ABUSUA

4.1. SEXU-ABUSUAREN KONTZEPTUA

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, haurren edo nerabeen sexu-abusua botere edo autoritate posizio batetik haur bat duen heldu baten edozein plazer mota da. Sexu-abusua haur edo nerabe baten eta heldu baten arteko jardueretan agertzen da, edo haur edo nerabe baten eta beste nerabe baten arteko jardueretan, baldin eta, bere adinagatik edo garapenagatik, erantzukizuneko, konfiantzako edo botereko egoeran badago.

Sexu-abusuak familian edo familiatik kanpo gerta daitezke. Europako Kontseiluak honela definitzen du familia barruko indarkeria: "familiako kide batek familiaren barruan egindako ekintza edo ez-egite oro, familia bereko beste kide baten bizitza, osotasun fisiko edo psikologikoa edo askatasuna kaltetzen duena, eta nortasunaren garapenari kalte larria eragiten diona".

4.2. SEXU-ABUSU MOTAK

Adingabe bati egindako sexu-abusua honako kasu hauetako edozein izan daiteke:

- a) Haurren edo nerabearen gorputzaren zati intimo edo erotikoak arroparen gainetik edo azpitik ukitzea.
- b) Musu ematen saiatzea, gorputza ukitzea, gehiegi hurbiltzea, etab.
- c) Zakila edo objektuak ahotik, uzkitik edo baginatik sartzea edo sartzen saiatzea.
- d) Sexu-jarduerarekin lotutako sexu-proposamenak edo iradokizunak egitea. Helburu sexualetarako elkartzeko proposamenak Internet edo beste bitarteko batzuk erabiliz.
- e) Adingabeari bere gorputza edo gorputz-atalak sexu-helburuekin erakusteko eskatzea, zuzenean edo Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak edo sare sozialak erabiliz.
- f) Keinu lizunekin edo komunikazio lizunekin jazartzea edo beldurtzea. Sexu-educia duten telefono-deiak, mugikorreko mezuak, mezu elektronikoak...
- g) Adingabeari material pornografikoa edo eduki sexualeko eszenak ikusaraztea.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

- h) Adingabearen irudiak helburu pornografikoetarako erabiltzea.
- i) Sexu-esplotazioa: adingabearen prostituzioa bultzatzea edo baimentzea.
- j) Haur edo nerabe batek beste bat sexu-jarduerak egitera behartzea, lehenengoa biktima baino nabarmen handiagoa denean edo indarra, mehatxuak edo bestelako presio- edo hertsapen-bitartekoak erabiltzen dituenean.

5. ESKOLAN JARDUTEKO PROZEDURA

Eskolan bi motatako esku-hartzeak egin daitezke:

5.1. PREBENTZIO-JARDUERAK

Irakasleak prestatzea haurtzaroan eta nerabezaroan sexu-abusua detektatzeko eta prebenitzeko. Beharrezkoa da hezkuntza-komunitatea osatzen dugun pertsona guztiok prestakuntza eta informazio egokia izatea, sexu-abusuren bat jasan dezakeen edozein kasuren aurrean behar bezala esku hartzeko. Prebentzioa hezkuntzaren esparruko funtsezko ardatzetako bat da, balizko sexu-abusuen egoerak gertatu aurretik esku hartzeko aukera emango baitu.

5.2. USTEZKO SEXU-ABUSU KASUETAN ESKU- HARTZEA

Irakasleak posizio pribilegiatuan daude ikasleengan sexu-abusu baten balizko adierazleak detektatzeko. Irakasle batek edo hezkuntza-komunitateko edozein kidek kasu bat jakinarazteko ez da beharrezkoa erabateko ziurtasuna izatea, nahikoa da arrazoizko susmoa izatea. Baliteke susmo horiek ez baieztatzea, baina horrek ez du esku-hartzea eragotzi behar, helburua laguntza profesional egokia bermatzea baita, adingabearen babesa azkar eta eraginkortasunez ziurtatuz eta haren esku-hartzean errepikapen-prozesuak saihestuz.

Haur edo nerabeen ustezko sexu-abusuen ebidentzia fisikoak eta/edo zantzu edo adierazle garrantzitsuak ikusi dituzten irakasleek edo irakasle ez diren langileek Eskolako zuzendariari jakinaraziko diote lehenbailehen. Zuzendariak lehenbailehen jakinaraziko dio familiari, eta abusua familia-ingurunetik datorrela susmatzen bada, zuzenean jakinaraziko die Gizarte Zerbitzuei.

Lehen azaldu den bezala, sexu-abusuen tipologia desberdinak daude, eta kasu bakoitza kontuan hartuko da gizarte-, osasun- eta hezkuntza-erantzun onena emateko, adingabearen interes gorena beti kontuan hartuta eta adingabearen balizko kalte fisikoak zein psikologikoak minimizatuta.